

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

### 5519

*AGINDUA, 2014ko urriaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzak emateko 2015eko deialdia egiten duena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia- eta teknologia-ahalbideak areagotu beharra dago, eta ikertzaile-taldeek arrakastaz eta gaitasunez parte hartu behar dute Europako ikerketa-espazioaren eraikuntzan. Horregatik, aurrera jarraitu behar da sail honek kudeatzen duen ekipamendu zientifikoko laguntzen programarekin.

Agindu honen bidez, azpiegitura handien erabilera errazten zaie horrelakoak behar dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko talde zientifiko guztiei, ikerketa-taldeek sarean jardun dezatela sustatuz.

Kontuan izanik: 193/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen (2013ko apirilaren 24ko EHAA, 78. zk.).

Halaber, kontuan izan behar dira, batetik, 1991ko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua (1992ko otsailaren 7ko EHAA, 26. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako diru-laguntzen bermeen eta itzulketaren jardunbide orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezartzen dituena, eta, bestetik, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolaraueri buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura egindako gastu-espedienteen aurretiko izapideak arautu dituen Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduarekin bat etorritik,

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

1.– Deialdi honen xedea da 18.001 y 240.000 euro bitarteko kostua (BEZik gabe) duten ekipamendu zientifikoak erosteko diru-laguntzak ematea.

2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

Deialdi honetarako, 300.000 euro erabiliko dira guztira.

Artikulu honetan esleitutako guztizko zenbatekoa handitu ahal izango da, guztira eskatutako laguntzen zenbatekoa kontuan hartuta, sail kudeatzailearen beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren agortu gabe gera litezkeen aurrekontuen arabera, eta laguntza horiek ebatzi aurretik. Horren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpenaren bidez emango da.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Honako hauek izango dira ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzak jaso ahalko dituzten erakundeak:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko (aurrerantzean ZTBES) agente kreditatuak, urriaren 1eko 221/2002 Dekretuaren 2. artikuluan azaltzen diren agente-kategorietan badaude (221/2002 Dekretua, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea arautzeko oinarriak eguneratu zituena). Hona hemen artikuluko horretan zerrendatzen diren kategoriak:

- oinarrizko eta bikaintasunezko ikerketako zentroak.
- zentroak, departamentuak, sekzioak edo unibertsitateetako beste ikerketa-unitate batzuk, EHUkoak izan ezik.
- ikerketa kooperatiboko zentroak.
- teknologia-zentroak.
- Ikerketako zentro sektorialak.

2.– Deialdi honen helburuetarako, honako hau joko da agente zientifiko teknologikoen erregistroko zerrenda eguneratutzat: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Teknologia eta Estrategia Zuzendaritzak egiaztatutako zerrenda, noiz eta deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunean, betiere urriaren 1eko 221/2002 Dekretuko 17.4 artikuluekin bat etorriaz.

3.– Deialdiaren eskaera batean, erakunde onuraduntzat joko dira bai eskabidea aurkezten duen erakundea (erakunde eskatzailea), bai eta eskaera babesten duten gainerako erakundeak ere (erakunde laguntzaileak), baldin eta ZTEBSren erregistroko zerrenda eguneratuan ageri badira, agindu honetan onuraduntzat jotzen diren kategorietako batean.

4.– Erakunde laguntzaileek beren ikerketa-proiektuetan eskaerako ekipamendu zientifikoa erabiltzeko konpromisoa hartzen duten ikerketa-taldeek bidez hartu beharko dute parte eskaeran.

5.– Ezingo dira erakunde onuradun izan diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen dien zigor administratibo edo penala jaso dutenak, edo halakorik eskuratzeko legezko debekuren bat dutenak, sexu-arrazoiengatik diskriminaziotatik zigorrak barne, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorritik.

4. artikulua.– Ikertzaileen betekizunak.

1.– Eskabidean, erakunde onuradun bakoitzak bere langileen arteko ikertzaile-talde bat –gutxienez hiru ikertzailek osatua– aurkeztuko du, ekipamendu zientifikoa erabiliko den proiektuetan lan egingo duena. Ikertzaile bakoitza honako epearen barruan kontratatu beharko du erakunde eskatzaileak edo haren laguntzaileak: deialdiko eskabideak entregatzeko epea amaitu baino lehen, eta, gutxienez, 2016ko abenduaren 31ra arte; ikertzailearen dedikazioa, bestalde, ekipamendua erabiliko den proiektuetan aurreikusitakoaren adinakoa izango da, gutxienez.

2.– Pertsona bat obra baterako kontratatu bada, obraren iraupenari eta kontratuaren luzapen gertagarriari buruzko agiriak aurkeztu beharko ditu, beharrezkoa bada, eta obra horrek dakarren dedikazioa adierazi beharko du, betiere proiekturako konprometitutako jardueri aurre egiteko ordu erabilgarri aski dagoela argi utziz.

3.– Ikertzaile bakoitzak deialdi honetako eskaera batean soilik hartu ahal izango du parte, erakunde eskatzaileko zein eskaera bateko erakunde laguntzaileko kide gisa. Ez da onartuko

doktoretza-tesia egiteko kontratatutako pertsonen partaidetzarik ekipamendu-eskabidean (prestakuntza-aldian diren doktoretza aurreko ikertzaileak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legeko 21. artikulua arabera).

4.– 2015erako eta 2016rako eskatu dituzten edo eman zaizkien beste proiektu batzuetan zentratutako lan-konpromisoa duten aitortu beharko dute parte hartzen duten ikertzaileek.

5.– 2012ko deialdian (2013-2014an garatzeko proiektuak) eta 2013koan (2014-2015an garatzeko proiektuak) diru-laguntza eskuratu zuen eskabide batean parte hartu zuten ikertzaileek ezin izango dute deialdi honetako ekipamendu-eskabidean parte hartu, ezta aurreko urteetan emandako ekipamendurako diru-laguntzei dagozkien burutu gabeko eginbideak dituztenek ere.

6.– Tresna erabiliko den proiektuetako ikertzaile nagusiek ekipamendu-eskaeran parte hartu beharko dute, ikerketa-talde eskatzaileetan zein horien talde laguntzaileetan.

7.– Deialdi honi dagokionez, Ikerbasque Fundazioak Research Professor edo Research Fellow kategorietan kontratatutako ikertzaileak erakunde bati atxikitzen badira, erakunde horretako plantillako ikertzaile kontsideratuko dira, betiere atxikipen-agiria aurkezten badute.

5. artikulua.– Ekipamenduen eta proiektuen betekizunak.

1.– Ekipamenduak egokiak eta beharrezkoak izan behar dute, eskabidean parte hartzen duten erakunde eskatzaileko eta laguntzaileko ikerketa-taldeen jarduneko eta etorkizuneko ikerketa-proiektuen garapenerako. Ekipamendua erabiliko duten proiektuek jardunean egon behar dute 2015ean eta 2016an, behin ekipamendua erakunde onuradunaren eskuetan erabilgarri dagoenetik aurrera.

2.– Administrazio publikoek espresuki finantzatu behar dizkiete ekipamenduaren erabilerarekin lotuta dauden proiektuak eskabidean parte hartzen duten erakundeei.

Ezin izango da aurkeztu proiektu bat, zeinetarako ekipamendu bat eskatzen baita, baldin eta proiektuko ikertzaile nagusiak ez badu eskarian parte hartzen; gainera espresuki horietan lan egin beharko dute eskabidea sinatzen duten gainerako pertsonak.

3.– Eskatutako ekipamendua, funtsean, gailu bakarra izango da, teknologikoki oinarrizkoa edo ardatza, eta 18.000 eurotik gorakoa. Gailu horrekin batera, aukerazko zenbait osagai edo modulu eros daitezke, gailu nagusiarekin batera funtzionamendu-unitate bakarra osatzen baldin badute. Aukerako osagaiak ez dira finantzatuko, gailu ardatzari edo oinarrizkoari lotzen ez bazaizkio.

Ezin izango dira finantzatu firma komertzial bat baino gehiagoren gailuetarako eskaerak, gutxienez artean funtzionamendu-unitate bakarra osatzen ez badute. Era berean, ezin da ekipamendu bereko ale bat baino gehiago finantzatu.

4.– 90.000 eurotik gorako kostua duten ekipamenduetarako langile espezializatuak behar dira, eta mantentze-lanak zorrotz bete behar dira. Horregatik, eskabidean parte hartzen duten erakundeei ekipamenduaren erabilgarritasuna eta errentagarritasuna ahalik eta handiena dela frogatu behar dute. Gainera, gailua erabiltzeko langile egokiak izateko eta errentagarritasun eta erabilgarritasun hori bermatuko duen urteko mantentze-kontratua izateko konpromisoa hartuko dute.

5.– Eskaeran erakunde laguntzaile batek parte hartzen badu, eskatutako ekipamenduaren erabilera eskaerako parte-hartzaileen artean kudeatzeko araudi bat aurkeztu beharko da.

6.– Deialdi honetatik beren beregi baztertzen dira honako hauek: eraikinak berrerratzeko edo hobetzeko obra zibilak; erabilera orokorreko (alegia, erabilera ez-zientifikoko) altzari, gailu eta

tresnak, irakaskuntzarako edo kalitatea kontrolatzeko eta zerbitzu teknikoak emateko erabiltzen direnak; bulegoko altzari, gailu eta tresnak; kudeaketako ekipo informatikoak. Aitzitik, prozesuak kontrolatzeko ordenagailuak eta kalkulu matematikoko ekipo bereziak onartu egingo dira.

7.– Ekipamendu bat beste erakunde batekin batera finantzatzen bada, laguntza emateko ebazpenak ekipamendua erosteko zenbateko finantziazioa ematen duen adierazi beharko du; finantziazio-zenbateko hori deialdi honetan eskatutakoaren baliokidea izango da.

6. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– ekipamenduak erosteko laguntzen zenbatekoak progresiboak izango dira, ebaluazio-batzordeak onartutako ekipamenduaren kostuaren arabera, betiere tarte bakoitzeko finantzaketa-portzentajeen arabera, honako laukian adierazten den bezala:

Tarteak	Deialdiko finantzaketa-portzentajea	Eskatzailearen finantzaketa-portzentajea
18.001-25.000	100	0
25.001-40.000	95	5
40.001-60.000	90	10
60.001-80.000	85	15
80.001-90.000	80	20
90.001-100.000	75	25
100.001-120.000	70	30
120.001-145.000	65	35
145.001-170.000	60	40
170.001-200.000	55	45
200.001-240.000	50	50

2.– Deialdi honen bidez ematen zaion diru-laguntzaren osagarria jartzeko konpromisoa hartuko du erakunde eskatzaileak, ebaluazio-batzordeak eskatutako ekipamendurako onartuko kostua estaltzeko, gutxienez.

3.– Diru-laguntza hori bateragarria izango da erakundeak ekipamendu hori bera erosteko jasozten dituen bestelako diru-laguntzekin, baldin eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzak baimentzen badu. Horrelakoetan, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak diru-laguntza murriztu dezake, gainfinantziatorik gerta ez dadin.

4.– Erosketarekin lotutako zergei dagozkien kostuak ez dira finantzatuko.

7. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabeteko izango da, agindu hau EHAA-n argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

2.– Eskaera egiteko, eskabide-ordria erabili beharko da, zein modu telematikoz lortu ahal izango baita, EAEko herri-administrazioaren egoitza elektronikoen bidez: (<https://www.euskadi.net/dirulaguntza/2015/ekizien/y22-izapide/eu>). Eskabidea elektronikoki sinatzeko, erakunde eskatzaileak erakunde-txartela izan beharko du, eta, halakorik ezean, legezko ordezkariak Eusko Jaurlaritzako ordezkarien erregistro elektronikoa alta hartu beharko du (Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioaren sailburuaren 2012ko abenduaren 14ko Agindua) esteka honetan: [https://euskadi.net/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/egoitza\\_\\_ordezkarien\\_erregistro/es\\_egoitza/egoitza\\_representantes.html](https://euskadi.net/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/egoitza__ordezkarien_erregistro/es_egoitza/egoitza_representantes.html)

Proiektuko eskatzaile eta ikertzaile nagusi denak, alta hartu beharko du aplikazioan, erabiltzaile gisa, edo ziurtagiri elektronikoa pertsonalaren bidez sartu (esate baterako, NAN elektronikoa), eta aplikazio horretan zehaztutako jarraibideak errespetatu beharko ditu. Parte hartzen duten ikertzaileak NANaren bitartez identifikatu beharko dira, eta, eskabidean parte hartzean, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari –deialdiaren organo kudeatzailea– baimena ematen diote identitate-datuak egiazta edo jaso ditzan, eskudun administrazioan, hain zuzen ere bitarteko elektronikoen bidez edo eskura diren beste bitarteko batzuen bitartez.

3.– Behin eskabide telematikoa zehaztaperen guztiekin bete eta agindu honetako 1. eranskinean zehaztutako dokumentazioa aplikazioari gehiturik, erakundeak edo haren legezko ordezkariak aukera dezake izapideetan aurrera egitea bide elektronikoen bidetik ala paperezko formatuaren bidetik.

4.– Izapidetzea paper bidez egin nahi izanez gero, aplikazioak sortzen duen eskabidea inprimatu beharko da, eta erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatu beharko du. Paperezko formatuan, manuzko agiri guztiekin batera aurkeztu beharko da eskabidea, artikulua honetako 6. paragrafoan zehazten den lekuan. Bide telematikotik aurkeztearen alde egiten bada, erakundeak edo haren legezko ordezkariak elektronikoki sinatu beharko du eskabidea, betiere 2. paragrafoan zehaztutakoari jarraituz, eta orduan geratuko da erregistraturik eskabidea.

5.– Datuak aipatu gabe uzteak, aldatzeak edo eskatutako informazioaren edo aplikazio telematikoa dauden dokumentuen erabilera okerra egiteak eskabidea ezestea ekarriko du.

6.– Nolanahi ere, eskarian erantzukizuneko adierazpena ere sartu behar da, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50. artikulua 6. idatzi-zatian agertzen dena (legegintza-dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen da, Euskadiren 2011ko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen bidez sartu dena).

7.– Paper-formatuko eskabideak honako helbide honetara bidali beharko dira.

Eusko Jaurlaritz  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila  
Zientzia Politikarako Zuzendaritza.  
Erreferentzia: Ekipamendu zientifikoa  
Donostia kalea, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz

edo Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomoen erregistroen eraketa, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan zehaztutako erregistroetarik edozeinen bidez, edo zuzenean, betiere deialdian eskabideak aurkezteko ezarritako epearen barruan. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 38.4 artikuluan aipatu edozein bulegotan ere aurkeztu ahal izango dira, eta bai Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan (Zuzenean) ere: Bizkaian, Kale Nagusia 85, 48011 Bilbao; Gipuzkoan, Andia kalea 13, 20003, Donostia; eta, Araban, Ramiro de Maeztu kalea 10-behealdea, 01008 Gasteiz.

8.– Erakunde batek baino gehiagok erabiliko badituzte ekipamenduok, 3. artikuluan jasotako erakundeak izan beharko dira, eta horietako bat bakarrik izango da eskatzailea; besteak laguntzaileak izango dira. Erakunde eskatzailea, gainera, proiektuaren koordinatzailea izango da, eta ekipamendua eskuratzeaz eta kudeatzeaz arduratzeaz gain, bere gain hartuko du Administrazioarekiko elkarrizketak eta harremanak izateko eginkizuna. Baldintza hori berariaz jasoko da eskarian, eskabidea zein erakundek babesten duten, eta, beraz, tresna erabiltzeko eskubidea zeintzuk izango duten adieraziz.

### 8. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzea, Ikerketa Proiektuen Zerbitzuaren bidez.

### 9. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetako akatsak zuzentzea.

Punturen baten, agindu honetako goragoko paragrafoetan eskatutakoa ez badute betetzen eskabideek eta dokumentazioak, sinatzaileari zera eskatuko zaio: 10 eguneko epean, akatsa zuzentzeko edo manuzko agiriak aurkezteko, ohartarazten zaiolarik ezen, hala egiten ez badu eskabidean atzera egin duela kontsideratuko dela, betiere alde aurretiko ebazpena delarik, zeina 30/1992 Legeko 42. artikuluan jasotako zehaztapenekin bat etorria eman beharko den (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa). Ez da onartuko hasierako eskabidearekiko aldaketarik, ezta beste parte-hartzaile batzuk edo proiektu berriak sartzea ere.

### 10. artikulua.– Ebaluazioa, aurrekontua onartzea eta diru-laguntzaren zenbatekoa esleitzea.

1.– Ebaluazio-batzordeko kide honako hauek izango dira: Zientzia Politikarako zuzendaria (bera izango da lehendakaria), Unibertsitateetako zuzendaria, ikerketa-proiektuen teknikari bat, eta zientzia-ebaluazioko aditu bat edo bi, Zientzia Politikarako zuzendariak izendatuak. Aipatu batzordeak eskabide bakoitzari buruzko txostenak eskatu ahal izango dizkie dagokien jakintza-arloan ospea eta ebaluatzeko esperientzia dituzten ikertzaileei. Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionalak (ANEP) edo Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak egin ahal izango dituzte aipatu txostenak. Ebaluazio-batzordeak deialdiko irizpideak behar bezala aplikatuko ditu, eta, bestalde, homogeneizatu egingo du gaiaz aditu diren pertsona ebaluatzaileek egindako interpretazioa.

2.– Diru-laguntzak emateko ebazpen-proposamena egiteko, Ebaluazio Batzordeak jarraian aipatzen diren irizpideak izango ditu kontuan eskabideak ebaluatu, aukeratu eta eskarien lehentasunen arabera ordenatzeko:

Ebaluazio-irizpideak	Puntuak
1.– Eskaera egiten duen ikerketa-taldearen eta eskaeraren alde egiten duten taldeen kalitate zientifikoa.	25
2.– Koordinatutako talde-kopurua, eta eskaera egin duten taldeen eta eskaeraren alde egiten duten taldeen harreman-maila eta sareko lana.	20
3.– Eskatzen den ekipamenduaren erabilpenarekin lotutako metodologiak eta teknikak erabiltzen talde eskatzaileak erakusten duen esperientzia.	10
4.– Eskatzen den ekipamendu zientifikoaren xede izango diren proiektuen kalitate zientifiko eta teknikoak.	15
5.– Ekipamenduaren eraginkortasuna, eskatzen den konfigurazioan.	10
6.– Ekipamenduaren egokitasuna taldeen ikerketa ildoetarako, eta ohiko alternatiben aldean dituen abantailak.	10
7.– Zehazki ekipamendu bera eskuratzeko, lehiaketako deialdi publikoetatik lortutako finantzaketa.	10
Guztira	100

3.– Ebaluazio-sistema homogeneizatu eta irizpideak aplikatzerakoan objektibotasun handiagoa lortze aldera, deialdiaren II. eranskinean adierazi dira irizpideak zehatzago baloratzeko aspektuen

xehetasunak, ebaluatzaileei euren lanean laguntzeko eta ebaluazio-prozedura gardenagoa izan dadin.

4.– Agindu honetan araututako laguntzak ematea balioespen-fasean lortutako puntuazioaren arabera lehentasunezko hurrenkera eta Ebaluazio Batzordeak ekipamendu-eskaera bakoitzeko onartutako kostua aintzat hartuta zehaztuko da, diru-laguntzaren zenbatekoa kreditua amaitu arte esleituta, betiere 6. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera. Ebaluazioan gutxienez 50 puntu lortzen dituzten eskaerak soilik joko dira finantzarritzat. Edonola ere, zenbatekoari Aginduaren 6. artikuluan ezarritako mugak errespetatuko dira beti.

5.– Deialdi honetan eskatutako ekipamendua eskuratzeko beste erakunde publiko baten laguntutako finantziazioa badago, lehia bidezko deialdi bidez behin betiko esleituta, esleituko den zenbatekoa Ebaluazio Batzordeak ekipamendurako onartutako kostuari beste erakunde horrek emandako diru-laguntzaren zenbatekoa kenduta ateratzen den emaitza baino txikiagoa izango da.

11. artikulua.– Ebazpena.

1.– Ebaluazio Batzordeak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari aurkeztuko dio ebazpen-proposamena, eta horrek esleitu edo ukatu egingo ditu laguntzak, ebazpen arrazoitu baten bidez. Interesdunei jakinaraziko zaie ebazpen hori. Jende oro jakitun izan dadin, EHAAn argitaratuko da erakunde onuradunen zerrenda, esleitutako urtekako zenbatekoa eta, gauza dadin, finantziazioa jaso duen programaren titulua.

2.– Ebazpenean, eskabide bakoitzaren honako erreferentziak jaso behar dira:

- Eskabidearen kodea.
- Erakunde eskatzaileko ikertzaile nagusiaren izena.
- Erakunde onuradunak: eskatzailea eta laguntzailea.

Finantzatutako eskaerarako:

- Ekipamendu zientifikoaren izena edo deskribapen laburra.
- Deialdiaren bidez esleitzen den laguntzaren zenbatekoa.

Finantzatu ez diren edo kanpo utzitako eskaerarako:

- ez finantzatzearen edo bazter uztearen zergatia.

3.– Ebazpen horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean. Deialdi hau argitaratzen denetik hasita sei hilabeteko epean ez bada berariazko ebazpenik ematen, eskariak isilbidez ezetsizat jo ahal izango dira.

12. artikulua.– Jakinarazpenak.

Derrigorrez bete beharreko epea ezarri behar duten jakinarazpenak badira, hala nola zuzenketa eskatzekoak eta deialdiaren ebazpena jakinaraztekoak, honako prozedura honen bitartez egingo dira:

EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan (<https://euskadi.net>) aipatu ebazpena argitara emanez egingo da jakinarazpena. Jakinarazpen horren datak ondorioak izango ditu epeak zenbatzerakoan.

Jakinarazpen-era horretaz gain, honela ere egingo da: [www.Euskadi.net](http://www.Euskadi.net) egoitza elektronikoa-  
ren iragarki-oholean ediktu bat argitaratuaz.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzak interesdunei bidali ahal izango dizkie egindako jakinaraz-  
penei buruzko abisuak, SMS edo posta elektronikoa bidez. Nolanahi ere, abisu horiek ez dira  
benetako jakinarazpentzat hartuko.

13. artikulua.– Beste diru-laguntza eta laguntza batzuekiko bateragarritasuna/bateraezintasuna.

Diru-laguntza hau bateragarria da helburu berarekin beste erakunde finantzatzaile batzuek  
emandakoekin. Beste erakunde bateko edo Eusko Jaurlaritzaren beste sail bateko deialdi batean  
parte hartu badu onuradunak, eta ekipamendu beraren erosketa zati batean finantzatu bada dagoe-  
neko, zati osagarriari dagokion diru-laguntza eman ahalko zaio deialdi honen bitartez, betiere  
ziurtatuz guztizko finantziarioak adierazitako beharrak ez dituela gaindituko. Gainfinantzetarik  
detektatuz gero, deialdi honen bidez emandako finantzaketa kopuru horretan txikituko da. Zientzia  
Politikarako Zuzendaritza beste alderdi finantzatzailearekin harremanetan jarri ahal izango da,  
lagundutako finantzaketa-akordio bat lortzeko. Nolanahi ere, eskatzaileak argi eta garbi egiaztatu  
beharko du zein diren kanpoko finantzetaren xedea, jarduerak, zenbatekoa eta banaketa.

14. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzeko baldintzak.

1.– Erakunde onuradunak diru-laguntza onartu beharko du. Ebazpenaren jakinarazpena jaso-  
zen duenetik 10 eguneko epean ez badio diru-laguntzari beren beregi uko egiten, onartu duela  
ulertuko da.

2.– Ikertzaile nagusia atxikita dagoen erakunde onuradun eskatzaileari ordainduko zaio  
diru-laguntzen zenbatekoa.

3.– Diru-laguntzaren ordainketa erosi aurretik edo ondoren egin ahal izango da.

4.– Aldez aurreko ordainketa ebazpenaren ondorengo hiru hilabeteko epean egindako ordain-  
keta bakarria izango da, eta agiri hauek aurkeztu ondoren gauzatuko da:

– Erosketa egin aurretiko proformako faktura, ebazpenean adierazten den ekipamendua jaso-  
zen duena.

– Firma komertzial bati ekipamendua erosteko eginiko eskaera formala.

– Erakunde onuradun eskatzailearen legezko ordezkariak sinatutako ziurtagiria, diru-laguntza  
osatzeko beharko litzatekeen zenbatekoa eskuratzeko modua duela adierazten duena, baldin eta  
ekipamenduaren kostu osoa jasotako diru-laguntza baino handiagoa bada.

5.– Ordainketa aldez aurretik egin ez bada, erosketa-faktura aurkeztu ondoren egingo da.

6.– Edonola ere, diru-laguntzak xede duen gastua ebazpenaren ondorengo sei hilabeteko  
epean gauzatu beharko da.

7.– Diru-laguntzaren zenbatekoa abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako berme-arau-  
bidearen arabera bermatuko da. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu  
Orokorren konturako diru-laguntzen itzulketen eta bermeen araubide orokorra arautu zen, eta  
kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, araubidea eta obligazioak  
ezarri ziren.

8.– Erakunde onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde bat ez  
bada, Euskal Autonomia Erkidegoko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeha-



rrak beteta dituela frogatu beharko du, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan ezarritakoari jarraikiz (1992ko uztailaren 8ko EHAA).

9.– Laguntzak eskatzen dituzten erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz. Interesdunek Nafarroako Ogasunean ordaintzen badituzte zergak, zerga-betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

15. artikulua.– Diru-laguntzaren erabileraren jarraipena.

1.– Erakunde onuradun eskatzailearen legezko ordezkariak finantzatutako ekipamendu zientifikoak erosi izanaren faktura orijinalak bidali beharko ditu Zientzia Politikarako Zuzendaritzara, ebazpena eman eta zazpi hilabete igaro baino lehenago. Laguntzen organo kudeatzaileak zigilatu ostean, onuradunari itzuliko zaizkio. Ebazpenean aipatzen den ekipamenduaren deskribapena jaso beharko dute fakturek.

2.– Faktura originalak erakunde onuradunean artxibatu beharko dira; halaber, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, euren funtzioak betez, deialdi honetan jasotako diru-laguntzei buruz eskatzen duten informazio guztia eman beharko da.

3.– Ebazpena eman ondoko 12 hilabeteetan, erakunde onuradun eskatzailearen legezko ordezkariak txosten bat aurkeztu beharko dio laguntzen kudeaketa-organuari, ikertzaile nagusiak sinatua, erositako ekipamendua jaso, martxan jarri eta erabiltzeari buruz. Atal hauek sartu behar dira bertan, gutxienez:

a) Ekipamenduaren behin betiko kokapenaren deskribapena.

b) Eskuratutako ekipamenduaren kalitatearekiko adostasuna, aurreikusitako helburuetarako egokia dela, eta harrera-proben emaitza.

c) Eskatera erakunde onuradun laguntzaile batekin partekatzen bada, talde eskatzaileek ekipamenduari emango dioten erabilera partekatuaren programa.

4.– Erakunde onuradunen urteko memorietan eta ekipamendua erabiltzen den proiektuetatik sortutako zientzia-argitalpenetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza jaso dela adierazi beharko da.

5.– Diruz lagundutako ekipamendua deialdian ezarritako epeetan erostea galarazten duen eta behar bezala justifikatuta dagoen arrazoirik badago, erakunde onuradunaren legezko ordezkariak gastua egiteko luzapena eskatu ahalko dio Zientzia Politikarako Zuzendaritzari –gehienez 3 hilabetekoa–, 12.6 artikuluan adierazitako epea amaitu aurretik, betiere luzapen horretarako dituen arrazoiak behar bezala frogatuta.

16. artikulua.– Laguntza emateko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatuz gero, eta betiere diru-laguntzaren helburua bete bada, edo beste erakunde publiko edo pribaturen batek, aldi berean, bestelako diru-laguntza edo laguntzarik eman badu, diru-laguntzak emateko ebazpena alda daiteke. Horretarako, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak beharrezko likidazio-ebazpena emango du, eta, ebazpen horretan, berriro doituko dira emandako diru-laguntzen zenbatekoak.

Agindu honetan ezarritakoa ez betetzeagatik esleitu den diru-zenbatekoa aldatu edo indar-gabetu behar bada, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak ebazpen individual baten bidez jakinaraziko du.

17. artikulua.– Diru-laguntza itzuli behar izateko edo laguntzarako eskubidea galtzeko kausak.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak ez direla bete jakinez gero, eskuratu diren zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoaren Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, azaroaren 11ko 1/97 Legegintza Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoa betez.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan azaldutako kausez gain, honako hauek izango dira diru-laguntzarako eskubidea galtzeko edo itzulketa egin behar izateko kausak:

a) Ekipamendu batean beste iturri batzuetatik datorren finantziazioa metatzea edo ekipamendu horren aldaerak beste erakunde publiko edo pribatu batzuei aurkeztea, finantziazio eske, behar adina justifikatu gabe eta aurretik Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinarazi gabe eta horrek horrelakorik onartu gabe.

b) Onartutakoa ez den ekipamendu bat ordaintzeko erabiltzea diru-laguntza.

c) Deialdi honetako oinarrien eta administrazio-agirien ez-betetze larria (osorik edo zati batean).

d) Datuak modu larrian ezkutatzea, aldatzea edo eskaera manipulatzeko.

e) Diru-laguntza agindu honetan ezarritako epeetan ez erabiltzea.

3.– Era berean, diru-laguntza itzuli beharko da, baldin eta ikertzaile nagusiak edo diru-laguntza eskatu duen erakunde onuradunaren legezko ordezkariak ekipamenduari uko egiten badiote, edo ikertzaile nagusia jatorrizkoa ez den beste erakunde edo EAEtik kanpo lanera joaten bada, eta horrek arriskuan jartzen badu onartutako ekipamendu zientifikoari dagokion proiektuen zuzendaritza.

18. artikulua.– Datu pertsonalen babesa.

1.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, Ikerketa izeneko fitxategi batean sartuko dira datuok, diru-laguntzen deialdi hau eta beronekin zerikusirik duen beste edozein prozedura edo administrazio-espeditente kudeatzeko, bai eta deialdira biltzen direnei deialdiaren bilakaeraren berri emateko ere. Zientzia Politikarako Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna. Zientzia Politikarako Zuzendaritzan erabili ahal izango dira eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideak; horretarako, honako helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetara bildutako pertsonak baimena ematen diote Zientzia Politikarako Zuzendaritzari aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren egiaztatzeko beste erakunde publiko batzuetan.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren pentzutan egingo diren gastu-espeditenteak aurrez izapidetzeari buruz Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko

Aginduan aipatzen diren ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2015. urteko aurrekontu orokorretan alde aurretik behar besteko kreditu egoki egotearen baldintzapean gelditzen da agindu honetako laguntzen ebazpena.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Lehenengoa.– Deialdi honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzietako jurisdikzio-organoaren aurrean, argitaratzen den egunaren biharamunetik bi hileko epean.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean izango da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 28a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

## I. ERANSKINA

## ESKABIDEAREN EDUKIA

1.– Eskabideak honako informazioa jasotzen du.

a) Erakundearen eta ikertzaile nagusiaren identifikazioak.

b) Parte hartzen duten ikertzaileetariko bakoitzaren identifikazioa, non honako hauei buruzko informazioa jasotzen den: titulazio akademikoa, kontratu mota (mugagabea edo aldi baterakoa) eta urteko zenbat orduko dedikazioa kontratatu den.

c) Aktiboan edo eskabide-fasean diren ikerketa-proiektuen identifikazioa, zeintzuetan, eskatutako proiektua garatzen ari delarik, ikertzaile-taldeak parte hartuko duen, baita ekipamendua erabiliko den proiektuena ere.

d) Ekipamendu zientifiko hori erosteko beste erakunde batzuetatik jasotako finantziazioaren gaineko informazioa, finantza-bideak eman dituen erakundea eta eskatutako edo emandako zenbatekoa adieraziz, baldin eta hori dagoeneko ebatzita badago.

e) Eskatutako ekipamenduaren ezaugarri tekniko eta ekonomikoen gaineko informazioa.

f) Erantzukizunpeko adierazpena, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2011rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 5/2010 Legeak 50. artikulua 6. atalean diru-laguntzei dagokienez egindako aldaketan aipatzen dena, adieraziz, gainera, ekipamendu hori bera erosteko beste erakunde batzuei egindako eskabideak daudela.

g) Erakunde eskatzailearen adierazpena.

1) Dagokion inguru zientifikoan ekipamendu hori dagoen ala ez adieraziko da.

2) Ekipamendu-erosketan onuradunari dagokion zatiaren ekarpen ekonomikoa egiteko konpromisoa, 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldin eta diru-laguntza ematen bada.

3) Erakunde eskatzailearen konpromisoa, 90.000 euro edo hortik gorako kostua duen ekipamendua erabiltzeko eta mantentzeko. Konpromiso horretan, adierazi beharko du zein sistema erabiliko duen ekipamendua erabiltzeko (langile operadoreak) eta ekipamendua mantentzeko, betiere eskatutako ekipamenduaren erabilgarritasuna eta errendimendua ahalik eta handiena dela ziurtatzeko.

2.– Eskabideari honako hauek erantsiko zaizkio:

a) Ikertzaile parte-hartzaileetako bakoitzak sinatutako dokumentua, zeinetan 2015-2016 aldian proiektu aktiboetan izango den dedikazioa jasotzen baita.

b) Txosten teknikoa, proiektuetan ekipamenduaren premia dagoela justifikatuko duena, orain arte erabili izan diren ekipamenduen ordeztutako teknika instrumentalak erabiltzeko beharra adieraziz. Proiektuetako bakoitzaren deskribapena, edo, gutxienez, ekipamenduaren erabileraren % 70 daukatenen deskribapena. Erabiltzen dituzten teknologia alternatiboak zehaztu behar dira, eta eskatutako ekipamenduak ekarriko lituzkeen onura eta abantailak azaldu. Ekipamendu zientifikoa-  
ren eta haren osagaien balorazio ekonomikoa.

c) Erakunde eskatzailearekin edo haren laguntzailearekin ikertzaile parte-hartzaileak duen lan-kontratuaren kopia, zeinetan kontratuaren hasierako eta bukaerako datak, iraupena eta urteko dedikazioa jasotzen diren. Pertsona bat obra baterako kontratatu bada, obraren iraupenari eta

kontratuaren luzapen gertagarriari buruzko agiriak aurkeztu beharko ditu, eta horrez gain, obra horrek dakarren dedikazioa adierazi beharko du.

d) Ikerbasque-k kontratatua izanez gero, zentro eskatzaileari atxikita izateari buruzko dokumentua, 4.7 artikulua araberaz.

e) Eskaeran parte hartzen duen ikertzaile bakoitzaren NANaren kopia.

f) Parte-hartzaile bakoitzaren nortasun-agiriaren (pasaportea) kopia, eta parte hartzen duen zentro bakoitzaren IFKren kopia.

g) Kofinantzatutako ekipamenduaren eskabidearen kopia.

h) Kofinantzatutako ekipamenduari buruzko ebazpenaren kopia.

i) Eskatutako ekipamenduaren proforma fakturak.

j) Eskaeran parte hartzen duten erakundeetan lehendik dauden ekipamenduak eskatzen badira, honakoak aurkeztu beharko dira: ekipamendu horien erosketa-fakturak, egungo egoera, ekipamenduaren azken urteko erabileraren estatistika (erabileraren erregistroko liburuxkarekin bat etorriz) eta ekipamendu berriak aurrekoarekiko dituen abantailen deskribapena.

k) Eskabidean erakunde laguntzaile batek parte hartzen badu, erabilera kudeatzeko araudia aurkeztu behar da, sail honek abalaturik eta erakunde onuradunak sinaturik, ekipamendua beste ikerketa-talde batzuekin modu egokian partekatzea bermatuko duena.

l) Esleipen irizpideen arabera proposamena zuzen ebaluatzeko bidezkoztat jotzen diren agiriak.

2014ko abenduaren 30a, asteartea

II. ERANSKINA  
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 25
1.-	Eskaera egiten duen ikerketa-taldearen eta eskaeraren alde egiten duten taldeen kalitate zientifikoa, curriculum kolektiboan adierazita.	
1	Eskaera egin duen ikertzaile-taldearen argitalpen zientifikoaren kopuruak produktibitate ona erakusten du, eta betiere, dauzkan baliabideekiko proportzionala da.	
2	Eskaera egin duen ikertzaile-taldearen argitalpen zientifikoaren eremua honakoa da: nazioartekoa (puntuaziorik handiena), estatukoa (ertaina) edo tokikoa (gutxienezkoa).	
3 .	Eskaera egin duen ikertzaile-taldeak aurkeztu dituen patenteen eremua honako hau da: estatukoa (puntuazio ertaina), Europakoa edo nazioartekoa (EPO edo PCT) (handiena).	
4	Dauzkaten patenteak merkaturatzeko fasean daude, tokiko, estatuko edo nazioarteko enpresei emango zaizkien lizentzien bidez.	
5	Eskaera egiten duen ikertzaile-taldeak doktoretza-tesiak zuzendu ohi ditu, jasotzen dituen baliabideen besteko kopuru eta kalitatekoak.	
6	Eskaera egin duen ikertzaile-taldeak nazioarteko ikertzaile-taldeen lankidetzan jarduten du, eta lankidetzan hori elkarrekin idatzitako argitalpenetan erakusten da.	
7	Eskaeraren alde egin duen ikertzaile-taldearen argitalpen zientifikoaren kopuruak produktibitate ona erakusten du, eta betiere, dauzkan baliabideekiko proportzionala da.	
8	Eskaeraren alde egin duen ikertzaile-taldearen argitalpen zientifikoaren eremua tokikoa, estatukoa edo nazioartekoa da.	
9	Eskaeraren alde egin duen ikertzaile-taldeak estatuko, Europako edo nazioarteko (PCT) eremuetako patenteak aurkeztu dituzte.	
10	Dauzkaten patenteak merkaturatzeko fasean daude, tokiko, estatuko edo nazioarteko enpresei emango zaizkien lizentzien bidez.	
11	Eskaeraren alde egin duen ikertzaile-taldeak doktoretza-tesiak zuzendu ohi dituzte, jasotzen dituzten baliabideen besteko kopuru eta kalitatekoak.	
12	Eskaeraren alde egin duen ikertzaile-taldeak nazioarteko ikertzaile-taldeen lankidetzan jarduten dute, eta lankidetzan hori elkarrekin idatzitako argitalpenetan erakusten da.	
13	Eskaera egin duen eta eskaeraren alde agertu diren ikertzaile-taldeetako ikertzaile nagusien garrantzi zientifikoa handiagoa da euren jakintza-eremuko ikertzaileen batez bestekoa baino.	

2014ko abenduaren 30a, asteartea

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 20
2.–	Koordinatutako talde-kopurua, eta eskaera egin duten taldeen eta eskaeraren alde egiten duten taldeen harreman-maila eta sareko lana.	
1	Eskatutako ekipamendua edo haren oinarritzko unitatea ez dago EAEko eremu zientifiko-teknikoan.	
2	Eskaera egin duten taldeak eta eskaeraren alde agertu diren taldeak hainbat erakundeetako dira, eta guztiak dira delaidiko onuradun.	
3	Sail ezberdinetakoak izan arren, talde eskatzaileak eta laguntzaileak erakunde berekoak izanez gero, talde eskatzaile bakartzat hartu behar dira nahitaez, eta ezin dute puntuaziorik lortu irizpide horretan.	
4	Eskaeran parte hartu duten taldeek elkarrekin lan egin ohi dute (puntuaziorik handiena), inoiz elkarrekin lan egin dute edo eskaera honen ondorioz behin-behineko harremana dute (gutxienezkoa).	
5	Talde eskatzaileek elkarrekin proiekturen bat daukate gaur egun.	
6	Eskaeran parte hartu duten taldeek baterako argitalpenak egin dituzte (puntuaziorik handiena), edo, aitzitik, ez dute argitalpen bat bera ere argitaratu batera (gutxienezkoa).	
7	Zientziaren eta/edo metodologiaren ikuspegitik arrazoi errealak daude parte hartzen duten talde guztiek eskaera elkarrekin egiteko, hurbiltasun eta abagune arrazoz gainera.	
8	Talde eskatzaileak ospe handieneko taldea izan behar du, edo, hala badagokio, eskatutako tresna gehien erabiltzen duena.	
9	Taldeen arteko harremanak, ekipamenduaren erabilera banatzeko portzentajeak, eta partekatutako ekipamendua kudeatzeko proposamenak ekipamenduaren erabilera egokia eta errentagarria bermatzen dute.	

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 10
3.–	Ikertzaileek esperientzia izatea eskatutako ekipamenduaren metodologiak eta teknikak erabiltzen.	
1	Talde eskatzaileak eskatutako ekipamendurako metodologია eta teknikak erabili dituzte argitalpenetan, edo teknika horiei buruzko ikerketak egin dituzte.	
2	Talde eskatzaileak eskatutako ekipamenduarekin lotutako metodologია eta teknikak erabili dituzte, finantziario publiko bidez edo kontratuen bidez.	
3	Talde eskatzaileak ezagutza eta eskarmentu handia erakutsi dute eskatutako ekipamenduarekin zerikusia duten metodologiei dagokienez.	
4	Talde eskatzaileak ondo ezagutzen dituzte eskatutako ekipamenduaren teknologია eta teknika alternatiboak eta/edo ekipamenduaren teknika eta teknologია aitzindariak; beraz, ekipamendua modu eraginkorrean erabili ahal izango du erosten duen unetik aurrera.	
5	Talde eskatzaileak ezagutzen eta esperientzia oparoak dituzte eskatutako ekipamenduarekin lotutako teknologien erabileran.	
6	Eskaeraren aldeko taldeak ondo ezagutzen dituzte eskatutako ekipamenduaren teknologია eta teknika alternatiboak edota ekipamenduaren teknika eta teknologია aitzindariak; beraz, ekipamendua modu eraginkorrean erabili ahal izango du erosten duen unetik aurrera.	
7	Ekipamenduak behar duen teknologია berria da ikertzaile-taldeentzat, baina laster ikasiko dute modu errentagarri eta eraginkorrean nola erabili.	
8	Gaiaren aurrekariak eta bibliografía ondo ezagutzen direla adierazi da ekipamendu-eskaeran.	

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 15
4.-	Eskatzen den ekipamendu zientifikoaren xede izango diren proiektuen kalitate zientifiko eta teknikoa.	
1	Ekipamenduaren erabilera nagusia eta lehentasuneko lehia bidezko deialdi publikoetan finantzatzen diren ikerketa-proiektuena izango da. Lehentasuneko erabilera edo erabilera nagusia ezin daiteke izan erakunde edo enpresentzako zerbitzu edo lanak, kalitate kontrola eta abar egitea, nahiz eta erakunde edo enpresa horiek eremu publikokoak izan.	
2	Eskatutako ekipamenduaren xede diren proiektuak, hau da, erabilera portzentajerik handiena izango dutenak, abian dira eta etorkizun hurbilean hala jarraituko dute, gutxienez urtebetez, eskaera egiten denetik aurrera.	
3	Proiektuak bukatzeaz edo eskaera-fasean badaude, hala adierazi behar da, kasu horretan ez baitago bermatuta ekipamenduaren erabilera errentagarria izango denik.	
4	Gainera, ekipamendua gehien erabiliko duten proiektuak kalitate handikoak dira, eta emaitza zientifiko garrantzitsuak lortzeko aukerak dituzte.	
5	Proiektu nagusiak Europar Batasunak finantzatu ditu: gehieneko balorazioa.	
6	Proiektu nagusiak Espainiako Estatuko I+G Plan Nazionalak edo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finantzatu ditu: balorazio ertaina.	
7	Proiektu nagusiak Etorrek edo Saiotek programen bidez finantzatu dira, edo autonomia-erakundeek, tokikoek edo enpresa-erakundeek finantzatu dituzte: balorazio txikia.	
8	Inbertsio-maila eta ekipamenduaren kostua, proiektuotan lortu nahi diren emaitzak, eta proiektuaren aurrekontua proportzionalak dira.	
9	Ekipamenduaren erabilera nagusia (% 75) gehienez ere hiru ikerketa-proiektutan biltzen da (baloraziorik handiena), edo ekipamenduaren erabilera banaketa homogeneoa egin da proiektu gehiagoren artean (gutxiago baloratuko da).	



2014ko abenduaren 30a, asteartea

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 10
5.– Ekipamenduaren eraginkortasuna, eskatzen den konfigurazioan.		
1	Funtsean gailu bakarrari dagokion ekipamendua lehenetsiko da, 18.000 euro baino gehiago balio duena.	
	Firma komertzial ezberdinen gailuen batuketa bada –unitate funtzional bat osatu gabe–, edo ekipamendu beraren ale bat baino gehiago eskatzen bada, deialditik kanpo geldituko da.	
2	Eskatu den ekipamendu nagusiaren konfigurazioa zuzena da, proiektuetan izango duen erabileraren ezaugarrien arabera.	
3	Azaldu egin behar da zenbateraino den proiektuetarako beharrezkoa edo komenigarria eskatzen diren aukerazko osagaiak erostea.	
4	Eskatutako ekipamendua, moduluz osatua bada, jatorrian integratutako eta unitate funtzionala duen sistema bati dagokio, eta firma komertzial berak hornitzen du.	
5	Eskatutako kostuen artean, honako hauek ez dira sartzen: altzariak, instalazioa, egokitzapena, gelak eraikitzea, ezta kudeaketako edo erabileraren orokorreko materiala ere, hau da, ikerketa-proiektuetarako berariazkoa ez dena.	
6	Eskatutako ekipamenduaren konfigurazio nahikoaren eta beharrezkoaren gutxieneko kostuaren gaineko informazioa eman behar da. Begiratu egin behar da, eskabidean kostuak komeni zaien bezala aldatu dituzten ikusteko, esaterako, konfigurazioan osagarri diren elementuak gehituz edo kenduz, deialdian onartzen diren zenbatekoetara iritsi arte. Hori guztia are garrantzitsuagoa da ekipamendu zientifiko handien kasuan.	
7	Eskaeran parte hartzen duten talde guztiak erabiliko duten gailuaren gutxieneko konfigurazioaren berri eman behar da, baita taldeen artean erraz partekatu ote daitekeen jakinarazi ere.	
8	Honako kasu hauetakoren bat gertatzen bada, hala adierazi behar da: zentro eskatzaileetakoren batean jada badagoen ekipamendu bat birjartzeko asmoa dagoen, bertsio eguneratu eta hobetua erosteko asmoa dagoen, edo orain dagoen gailua gehiegi erabiltzen delako gailu berria erosteko asmoa dagoen.	
9	Kasu horretan, lehendik dagoen gailuaren antzinakotasuna, egungo egoera, bere erabileraren errentagarritasun zientifikoa eta eskatzen den bertsio berriaren abantaila erantsiak baloratu behar dira.	

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 10
6.– Ekipamenduaren egokitasuna, taldeen ikerketa-ildoetarako, eta ohiko alternatiben aldean dituen abantailak.		
1	Eskaera egin duten ikertzaile-taldeek ikerketa-lerro bat edo gehiago dute finkatuta, oraingo proiektuak bukatu ondoren ere ekipamenduaren erabilera bermatzen dutenak.	
2	Bermatzen da taldeek ikerketan ekipamendua modu zentzudunean erabiliko dutela, hau da, urtean honako ordu-kopuru hauetan: 0-100; 100-300; 300-700; 700<.	
3	Ikertzaileek proiektuekin duten dedikazioa ikusita, esan daiteke proiektueitan ekipamendua erabiliiko den ordu-kopurua nahikoa izango dela.	
4	Eskatutako ekipamendua dagozkion ikerketa-proiektuak abiarazteko erabili diren teknikak baino hobe da. Zer-nolako abantailak izango dituen, eta kostuekiko proportzionalak diren ala ez.	
5	Ekipamenduak ikertzaile-taldeetan lehiakortasun zientifikoa igotzea ekarriko du.	

IRIZPIDEA	ZEHAZTAPENAK	Irizpidearen gehieneko puntuazioa: 10
7.– Aldeko balorazioa egingo zaio lehia bidezko deialdi publikoen bidez ekipamendu bera erosteko bestelako finantziazio-iturriak egoteari.		
1	Ekipamendu bera erosteko beste administrazio publiko baten finantziazio-iturria badagoela adierazi da.	
2	Lagundutako finantziazioaren jatorria den deialdia lehia bidezkoa da, kanpoko ebaluazioa du, eta eskatutako ekipamenduari buruzkoa da.	
3	Irizpidearen balorazio kuantitatiboa honako bi zenbaterako hauen arteko erlazioarekiko proportzioskoa izango da: lagundutako finantziazioaren bidez jarritako zenbaterakoaren eta batzordeak onartutako ekipamenduaren kostu osoaren zatia dagokion kostuaren artekoa –deialdiaren bidez finantzatu ahal dena–. Organo kudeatzaileak zuzenean ebaluatuko du irizpide hori.	